

2019EKO IRAILETIK ABENDURA BITARTEKO MENDUKILO KOBAZULOKO EKITALDIAK

FAMILIENDAKO MISTERIOZKO BISITAK

Irailaren 14an/ urriaren 26an/ azaroaren 30ean

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara

Animatu zaitez Aralarrek gordetzen dituen pertsonai mitologiko misteriotsuak ezagutzera pista joko baten bitartez eta sorgin batek lagundurik, Mendukilo kobazuloa aurkituz. Zuk egindako babes amuletoa etxera eramateko aukera izango duzu.

Informazio gehiago: <https://www.navarra.es/es/noticias/2019/09/12/este-fin-de-semana-se-inician-las-primeras-actividades-del-programa-bosques-y-vinedos-de-misterio-2019-del-gobierno-de-navarra>

BAT NIGHT – SAGUZARREN GAUA

Irailaren 28an (ZUZENDUA)

Ordutegia: 18:30etatik 23:00etara

Gure planetaren ekosisteman hain garrantzitsuak diren ugaztun hegalarien bizimodura hurbilduko gaituzte.

HARRIAREN BAKARRIZKETA

Urriaren 5ean

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara

Iñaki Perurenaren presentziaz gozatzeko aukera izango dugu; bisita gidatu batekin Aralarreko harriaren barnealdea ezagutuko dugu, Mendukilo kobazuloa, eta Iñakiren harriaren inguruko bakarrizketarekin bukatuko dugu bisita kobako lehendabiziko gelan, zer hobe harrietaz hitz egitea harriaren barruan ez bada.

OLENTZERO

Abenduaren 14, 15, 21 eta 22an

Goizez

Urte bat gehiagoz, gabon gauaren aurretik, Olentzeroren bisita izango dugu, etxeko txikientzat, kobazuloan bertan, beraien desioak adierazten duten gutunak Olentzerori eskura emateko.

Aurreko urteetako programazioari jarraituz, ikusentzunezko ipuina, hamaiketakoa, pisten bitarteko jokoa Olentzeroren laguntzaileen eskutik, eta bukatzeko, etxera eramateko eskulana eskainiko da.

****OHARRA: BISITARIEN KOPURUA MUGATUA DAGOENEZ, ERRESERBA EGITEA GOMENDATZEN DA 948 39 60 95 TELEFONOAN -- Info gehiago: www.mendukilo.com**

MENDUKILO KOBAZULOKO EKITALDIEN INFORMAZIOA

Agurrak lur azpitik;

Mendukilo kobazulotik, hurrengo udazkenari begira eta urte bukaera arte, prestatu ditugun ekitaldien berri ematen dizuegu.

Larunbat honetan hasiko gara, irailaren 14an, Nafarroako Turismok antolatutako “Misteriozko baso eta mahastiak” kanpainaren barruan egingo ditugun bisita mitologikoekin.

1ko Bat Nigh (saguzarren gaua) izango dugu jarraian, Juan Tomás Alcalde eta Iñaki Martínezekin irailaren bukaeran.

Urriarekin batera, lehendabiziko astean, Iñaki Perurena artistaren presentziarekin kontatuko dugu, bere hitzekin bilduko gaitu harriaren inguruko bakarriketan, harriaren barruan.

Etxeko txikietaz ahaztu gabe, Mendukilo koban 2019a Olentzerorekin bukatuko dugu.

Ekitaldi bakoitzaren informazio zabalagoa atxikiturik bidaltzen dugu, eta ahal den difusio handiena ematea eskertzen dugu.

Eskerrik asko eta agurrak